

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2019

Joan zen urtarrilaren 27an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen eta bere bi fundazioen (Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa eta EHUren Uda Ikastaroak) ekonomia eta finantza jardueraren 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz ezin eman izan duen iritzirik Berriazko Geldikinaren zuzentasunaren gainean (76,1 milioi euro), zeinaren atal bat Gastu Orokorretarako Geldikintzat hartu behar bailitzateke.

Finantzaren egoerari dagokionez, **emaitza arruntak** 5,5 milioi euroren **aldeko emaitza** izan du 2019an (sarrera arruntak langile gastuak baino handiagoak izan dira). Kapitallezko eragiketen superabitak behera egin du, kapital-transferentziak inbertsio errealak baino gehiago jaitsi baitira. Unibertsitateak ez du zorpetze-bidea erabili, aurreko 8 ekitaldietan bezalaxe. Epaitegiak ondorioztatu du inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa dela, bai kapitallezko diru-laguntza bidez, bai berriz ere zorpetuta.

Txostenak, gainera, adierazi du 2019ko aurrekontuaren likidazioak **finantzaren oreka eta iraunkortasun printzipioak betetzen** dituela, Urteko Kontuetan jasotako informazioaren arabera.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak zuzentasunez **bete duela** 2019an ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen **lege araudia**; alabaina, **unean uneko zenbait ez-betetze** azaleratu dira bai **Langileriaren Gastuen** alorrean (irakasleei arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik 538.157 euroren ordainsariak ordaintzea eta aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikerlariantzat Unibertsitateen Lege Organikoak ezarritako irakasleen plantillaren % 40ko muga gainditzea), bai **Administrazioko Kontratazioan** ere (iraungitako kontratuetan gastuak aitortzea).